

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. PHOTO CARTE FUNTSA. KUTXATEKA.

1917KO MAIATZAREN 1A, DONOSTIAN

1917ko maiatzaren 1ean, Langile Elkarteen Federazioak deituta, mitin bat egin zen Donostiako Amara auzo ezaguneko Arte Ederren Antzokian. Hizlari desberdinek hartu zuten hitza, eta Guillermo Torrijos nabarmendu zen, Rifeko gerra kolonialean Espainiako gobernuek egindako ekintzak eta horien ondorioak gaitzetsiz. Mitinaren ondoren bertaratutakoek komunikatu bat egin zuten, non hobekuntza sozialak eta lan-baldintzenak eskatzen zituzten; besteak beste, zortzi orduko lanaldia, langile guztientzako aseguru unibertsala, gerraren berehalako amaiera, langileen manifestazioen aurkako errepresioaren erantzule izan ziren Guardia Zibilen agintarien aurkako ekintza judizialak eta preso politikoentzako amnistia. Batzarraren ondoren, bertaratuak Gobernu Zibilera joan ziren, eta bertan, beren aldarrikapen guztiak biltzen zituen dokumentu bat aurkeztu zuten. Ricardo Martinen argazkian, manifestazioa Urbieta kaletik igarotzen ikusten da, musika-banda bat buru duela.